

# PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ane Alonso, Amara Beraza, Nagore Campos, Naroa Lambarri

---

Gasolina/gasolio bidez funtzionatzen duten autoek gehiegi kutsatzen dute gure ingurunea. Testuinguruan jartzeko, 100 g/km CO<sub>2</sub> kontsumitzen duen eta 250 km-ko abiaduran zirkulatzeren doan auto batek 25 tona gas igorriko ditu atmosferara. Igorritako CO<sub>2</sub>-a osasunarentzat zuzenean negatiboa ez den arren, gure planetako berotegi-efektuari laguntzen dio. Arazo horrek eragina izango du hirietan arnasten dugun airearen kalitatean. Hori dela eta, auto elektrikoek erabilerak gora egin du azken urteotan, jende asko kontzientziatu baita arazo horretaz, eta Energiaren Nazioarteko Agentziak (IEA) egindako txostenaren bidez ikus dezakegu. Txosten horretan azaltzen da auto elektrikoek salmenta 6,6 milioi unitatera iritsi zela 2021ean maila globalean, 2019an baino hiru aldiz gehiago.

Baina auto elektrikoek erabilerak gora egin duen arren, azpimarratu behar dugu Estatuan eta mundu osoan ez daukagula gaur egun erabiltzen ari diren auto kopurua kargatzeko adina bateria kargatzeko punturik. Gainera, elektrizitatearen prezioak gora egin du, eta horrek inbertsio handiagoa eskatzen du karga-puntu berriak txertatzeko orduan. Horregatik, karga-ideia bat aukeratu dugu, arazoetako bat konponduko diguna: karga-punturik ez izatea. Aipatu dugun irtenbide hori haririk gabeko oinarri inalambriko baten txertaketa da, lurrean jarriko dena plataforma gisa, eta aparkaleku-partzelak gaituko dizkigu, bai gasolina/gasoliozko ibilgailuentzat, bai ibilgailu elektrikoentzat.